



Sendietan euskararen erabilera sendotzeko moduak ari dira aztertzen Kultur Etxean.

Euskararen Topaketa

Udaletako euskara zerbitzu, ikastola, euskara elkarte, Topaguneko eta Emuneko ordezkariak bildu dira

Udal top Euskara-zerbitzuen I. Topaketari hasiera eman zitzaion atzo Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian. Euskara zerbitzuetako ordezkariak gain ikastoletako, euskara elkarteko, Topaguneko, Emuneko ordezkariak ere bertaratu dira, guztira 105 pertsona. Landuko duten gaia *Nola indartu euskararen erabilera familietan?* Atzo hitzaldi eta esperientzia ugari entzuteko aukera izan zuten eta gaur ere lanean jarraituko dute. •



Yanelle Sidokpohou, Benin-go neska sei hilabetez gure artean izan da /4-5

AISIA /3

Azkorteko erromeria burutuko da igande goizean

KIROLA /6

David Martin korrikalariak irabazi du Santa Krutz festetan Andoaingo krosa

KULTURA /3

Zoriontasuna izango da Giza Balioen inguruko hitzaldi sortaren gai nagusia



Lurrarengatik borrokan

Komite Internazionalistek eta Mundu bat GKEak antolatuta, asteazkenean *Lurrarengatik borrokan. Emakumeak borrokarako prest* hitzaldia burutu zen Manuel Lekuona kultur etxean.

Bertan Brasilgo MST elkarte-ko Edinalva Moreira eta Mozambikeko Nekazaritza nazio-batasuneko Ana Paula Taucalde kideek bere lurraldeetako egoeraz hitz egin eta haien elkarteek nekazarien alde egiten dutena ere azaldu zuten.

Aurretik, Brasilen lurrik ez duten nekazariak buruzko bideo ikusi ahal izan zen eta, ostean, Edinalvak Brasilen lurra-aren ara-

zoa handia dela azpimarratu zuen. Lurraren %50a biztanle-aren %1aren esku dago eta hauek %20 besterik ez dute produzitzen. Gainera, produkzio hori multinazionalen eskuetan dago eta esportaziorako erabiltzen da. Beraz, janari falta dago Brasilen eta nekazaritza-erreforma behar dute lur banaketa duina izateko.

Mozambiken, berriz, lurra lantzeko materiala eskuratzeko arazoak dituztela azaldu zuen Ana Paulak. Nekazariak pobreak dira eta ezin dute multinazionalen produktuekin lehiatu. •

JUAN IRAOLA
E HIJOS S.L.

AIRE GIROTUA

BEROKUNTZA

ITURGINTZA



ITURGINTZA

GASA

Iñigo de Loiola Kalea 8 behea
administracion@iraola.eu
Tel.: 943 36 0 500 // 652 774679



Neure kabuz



Kaixo, egur on!

Hara!... Hutsa! Akatsa! Hasieratik bertatik. Dio! Egur on jarri nahi eta egur on ez dut ba idatzi? Hau dexastrea! Ene...! Horixe dauka txarretik ordenagailuak: konturatu baino lehen, taka! tekla okerra sakatu eta akatsa. Eta horixe etorriko zaizu Euskaltzaindia berehala. Ez egur ona emateko, ez, ez, ez; egur ona emateko prest. Euskaltzaindia edo, auskalo, goi-goigotik ere; Zeus jainkoa bera, bere zerutik, dzazt! dzazt! tximista sorta jaurtitzeko listo. Zure buruan kanka! egiteko gogoz.

Ezetz? Horra adibidea. Etxeko buzoian aurkitu nuen orria. AHT-ren kostua (dirutan neurtzekoa, ez bestea) agertzen zen bertan: 6.341 milioi euro. Pezeta-tan, bilioitik gora! Milioitik ez, akatsik ez oraingoan, bilioitik gora!! 4.859 euro per-capita. Eskotean, aizuel!... Eta goi-goikoak haserretu egin dira. Eskoteari dagokiona ez dela erakutsi behar. "Moralen aurkakoa eta maltzurra" omen da. "Modu horretan gaixorik dauden pertsonak jokatzen dute". Hori arrazoi mota, hori! Ene...

Galdera bi bakarrik: Bat. Goi-goiko hauek mundu honetakoak al dira? Prezioei begiratu gabe egin al dituzte beren erosketak? Joño!! Eta bi. Gezurrak direla eta ez direla, goi-goiko hauek ez al dakite literatura zer den? Ez al da, fikzioaren bidez, errealitatea bereganatzeko baliabiderik ematerik?

Tira, ni lasai. Buruan kanka! ez hartzeko badakit zer egin. Hurrengo zutaberrako ordenagailua itzali, papera hartu... eta aurrera boliegrafoa! Lasaxeago horrela. Bai, bai.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Elena eta David

Zorionak bikote! Iritsi da ba eguna! Biharko eginbehar bakarra, ondo pasatzea!



Nerea

Zorionak. Ongietorri 3aren klubera morena!



Sonia

Zorionak izeba Sonia!!! Ondo pasa zure urtebetetzean, muxuak!!!



Igor

Hamar urte! Zorionak guraso eta osaba Nikoren partetik. Asko maite zaitugu



Ainara

Zorionak sorgintxo! 1000 muxu familiaren partetik!



Ander eta Jon

Ahaten parkeko bixki bananduei; zorionak bigarren urtebetetzean! Etxeko guztien partetik.



Aitor

Txokolatzeko muxuak Alfredo eta Pepi aitona, osaba-izeba eta Unairen partetik.



Maialen

Zorionak! Espero egun ona pasa izana zure laugarren urtebetetzean ahizpa eta familiarekin!



Ane

Aupa Ane, ZORIONAK eta 5 muxu. Amatxo, Aitaxo eta Eneko-ren partetik.



Nora

Zorionak eta txokolatezko muxu potolo pila bat. Famili guztiaren partetik.



Iker

Zorionak 3 muxu amatxo, aita eta familia guztiaren partetik.



Marta

Zorionak zure lehen jaunartzeagatik, aitona-ren partetik.

Guardiak

Ostirala, 8

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 9

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 10

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 11

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 12

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 13

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Osteguna, 14

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldegia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak



Koan Rodriguez Echeverria, Maiztaren 2an.
Aleaz Regueira López, Maiztaren 2an.
Narrea Regueira López, Maiztaren 2an.
Jon Medina Mateo, Apirilaren 26ean.

Heriotzak

Teresa Matilla Fuentes, Apirilaren 20ean 90 urte zituela.



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu saltzen da Lasarte-Orian. Erdialdean, kanpora ematen duena eta berritua. 2 gela, sukaldea eta egongela. 260.000 euro. Harremanetarako zenbakia, 626 505 689.

• Ezcaray-en duplex bat saltzen da. Erreka ondoan dago, igerilekua daukan urbanizazioan. 3 logela ditu eta etxea jantzita dago. Tel.: 652774679

Salerosketak

• Renault espace bat saltzen dut. 2004 urtekoa, 110.000 km, diesela, ondo zaindua, 7 pertsonentzako, beraztertua eta bermearekin. 12.000 euro. Harremanetarako: mikelponga@hotmail.com

Lan-eskariak

• Lasarte-Orian bizi den emakume gaztea eskeintzen da, etxeko lanak, garbiketako eta pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 671 474 513.

• Emakume arduratsua eskaintzen da, garbiketak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko. Egur osorako eta erreferentziarik. Tel.: 629 946 794

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858 • Geltoki 4 txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info
www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Gazte Informazioa ko Bulegoa

www.gipuzkoangazte.info

Hik Hasiren topaketak

Uztailaren 1etik 3ra bitartean egingo dira *Hik Hasiren Udako Topaketak*, Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eta Ekintza ikastolan. Interesa duen edonork parte har dezake. Izena emateko epea maiatzaren 29an amaitzen da.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Azkorteko erromeria igandean

Ohiturazko meza, herri kirolak eta bertsolariak goiz paregabea igarotzeko

Azkorteko erromeria igande honetan ospatuko dugu. Santa Krutz egunaren ondorengo igandean antolatuta ohi du Lasarte-Oriak erromeri hau ohitura legez.

Maiatza giro ederrean hasteko aukera paregabea da Azkorteko erromeriarena. Giro bikaina sortzen da erromeri honetan, eta primerako igande goiza pasatzeko aukera ona da, beti ere, eguraldiak laguntzen badu.

Egitaraua

Erromeriari hasiera emateko, 11:00etan meza ospatuko da 12:30etik aurrera, herri kirolak ikusteko aukera izango da eta bikotekako lehia bizia ikusi ahal izango da.

Aizkora lanetan, Mugertza aita-semearen arteko norgehiagoka egongo da eta harri-jasotzen bi gaztetxo izango ditugu, 16 urteko Idoia Etxeberria eta 13 urteko Beñat Telleria.

Egin beharreko lanak enborrak aizkoraz moztu, harria jaso eta enborrak tronztatu.

Lasarte-Oriako Bertso-eskolako Patxi Etxeberria eta



Herri kirolatan bikotekako lehia dago Muguertza aita-semblea aizkoran eta Idoia Etxeberria eta Beñat Telleria harria jasotzen.

Unai Muñoa ere bertan izango dira berto batzuek kantatu eta giroa alaitzeko.

Honetaz gain, goiz guztian zehar, Amalur eskolako gaztetxoek beren doinuekin erromeria girotuko dute.

Aterpean, gainera, tabernatxoak egongo da salda, pintxo eta edariekin erromeria nahi den adina luzatzeko.

Azkorteko erromeria Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen du eta Udaleko Gazteriako, Festetako eta

Kiroletakoa Batzordearen laguntza jasotzen du.

Autobusa

Urtero moduan, ezin izango da kotxeetan ermitara hurbildu. Kotxeak uzteko erabiltzen zen lekuri ez dago orain, eta, horregatik, Urnieta bideko bidegurutzetik gora ezingo da kotxean igo.

Horren ordean, autobusa jarriko da goizeko 9:00etatik aurrera Lasarte-Oriako erretiratu elkartetik. Honek ordu-

erdi egingo ditu bidaiak eta goiz osoan zehar gora eta behera ibiliko da. Ibilbidea doan izango da.

Autobusak plaza mugatuak dituzenez, mezetara joan nahi duenak autobusa nahiko goiz hartzea gomendatzen da.

Hori bai, sasoi dagoenarentzat, egokiena, joan-etorria oinez egitea da.

Ibilbidea oso polita baita, eta ez oso luzea; gainera txukundu berri dute ermitaraino doan ibilbide osoa. •

LOIDI BARREN

Frontoi eta paddle pistako lanak hasiko dira

Datorren astelehenean, maiatzak 11, frontoi eta paddle pista berriak eraikitzeko lanak hasiko dira udal kiroldegian ondoan.

Hori dela eta, aipatutako egunetik aurrera ezin izango da autorik utzi orain arte behin-behineko aparkalekua zen eremuan. •

ZABALETA BERRI

Illarraltzuetako bidea uztaile arte itxia

Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, astelehenean hasi eta uztaile arte Illarraltzuetako bidea itxia egongo da, Larrekoetxe eta Villa Maria Luisa artean.

GAZTEIDEIAK LEHIAKETA

Sandra Izagirre eta Javier Corbacho dira irabazleak

Gazteria eta Festetako sailak antolatuta duen Gazteideiak lehiaketako lehen edizioak irabazleak ditu, Sandra Izagirre Carretero eta Javier Corbacho Calvo.

Saileko arduradunen iritziz, bi parte-hartzaile hauen proposamenak izan dira lehiaketaren zentzua eta helburua gehien adierazten dutenak. Horregatik, hasiera batean aurreikusi ziren 100 euroko bost sari beharrean bi bakarrik banatu dira.

Sandra Izagirreren proposamena, Lasarte-Oria udalerrigisa eratu zeneko 25. urterenetik, hau da, 2011 urtetik aurrera urtero urterren ospatzea da. Herritarrak protagonista izango dira eta, horretarako, adin guztietarako ekintzak antolatuko dira aste horretako larunbatean.

Javier Corbachok teknologia berriak Udalaren eta herriko gazterien arteko elkarrengarierako egokitze proposamena aurkeztu du. Facebook edo Tuenti gizarte sareen eta posta elektronikoen edo sms bidez Gazteria sailak antolatzen duen ekimenei buruzko informazioa bidaliko zaie gazteei. Eta, horretarako, informazio jaso nahi duten guztien datu-base bat osatuko da.

Udalak irabazleen ideiak bi urteren buruan martxan jartzeko konpromisoa hartu du, eta haiekin hizketan ari da ideiak gauzatzeko biderik onena zein den erabakitzeko. •

Zoriontasuna nola lortu, Giza balioen hitzaldi sortan

Astelehena maiatzaren 11n hasiko dira *Balioetan hezi* izenburua daramaten VI. Jardunaldiak.

Urtero Danok Kide elkarteak antolatzen dituen jardunaldien gai zentrala zoriontasuna izango da aurtengoan eta zikloaren titulua *Giza balioak: zoria lortzeko bide bat* izango da. Hitzaldiak kulturetxean burutuko dira maiatzaren 11tik 14ra, egunero 19:30ean.

Lau ikuspuntu

Lau perspektiba ezberdinetatik jorratuko dute gaia eta horretarako ikuspegi bakoitzeko espezialista batek jorratuko du zoriontasunaren gaia.

Hizlariak eta gaiak ondoakoak izango dira; Concepcion Medrano Garapen psikologia eta hezkuntza irakasleak *Zoriontasuna filosofiatik* hitzaldia eskainiko du,



Lasarteoriatar ugari bildu ohi da *Balioetan hezi* jardunaldietako hitzaldietan.

Javier Elzo Imaz Soziologia katedradunak *Gizarte zoriontasua* hitzaldia, Xabier Andonegui Mendizabal Donostiako Erligio-zientzien Goi Mailako Institutuko zuzendariak *Zoriontasuna bizitza perspek-*

tiba bezala hitzaldia eta Patxi Izaguirrek *Zoriontasunaren ikuspegi psikologikoari* buruzko hitzaldia.

Hitzaldi guzti hauek askotan egonkortasun soziala, ekonomikoa eta politikoa,

zorionaren iturburutzat jo izan direla erreflejatuko dute.

Baita nahasmena, gerrak, liskarrak, dirua eta handinahia nagusi diren mundu honetan, biziki zorionaren traza duen zerbait sentitzen saiatzen garelako ere.

Guztik honen aurrean gizakiarentzat *giza balioak* anaitasuna, bakea, etengabeko hobekuntza eta autorrealizazioa lortzeko bidea dira.

Balio horietan heziaz lortzen du gizakiak gauzen arteko hierarkia bat ezartzen, honakoak zenbait sakrifizio eta uko ekarriko badizkio ere.

Giza balioen bidez lortzen du gizakiak giza legez jokatzea, gizatasuna. Balio eskala horrek mugatuko du bere pentsamendua, bere portaera, bere izatearen arrazoia, bere zer izana; eta bide batez, gizaki oren xederik gorena ekarriko dio, zoria. •

Yanelle Sidokpohou Afrikatik urrun sendatu bitartean

■ Edu Galardi eta Isa Fernandez de Agirrek etxean hartu dute Beningo neskato beltzarana ■ Azaroan etorri zen eta otsailetik, ebakuntza egin ziotenetik, ahoa zabaltzen du


Platanu bat jaten sartu zen Yanelle Sidokpohou Ttakumeko bulegora. Otsaillean ebakuntza egin zioten artean ezin zuen horrelakorik egin, ezta ahoa zabaltu ere. Beningoa da eta Gizakien Lurra, GKE, Gobernu Kanpoko Erakundearen bidez etorri zen azaroan Donostiako Hospitallean operatzeko. Hilaibete hauetan Edu Galardi, Isa Fernandez de Agirre eta hauen alaba Maider eta Aneren etxean bizi izan da. Laster, ahoko arazoa konponduta, bere herrira itzulkiko da Irribarre berriarekin.

JON AULTONA


Orotara ia sei hilaibete daramatza Euskal Herrian eta esan daiteneko ondoko dela bizimodu Beningo neskatok jaiotzatik. Ahoak ez dira itxuratuak izaten, ezin zuten ahoa ireki, eta ondorioz oso zaila egiten zitzaion jatea edota mintzatzera. Gizakien Lurra fundazioaren bidez azaroaren 27an etorri zen eta otsailaren 16an operatu zuten. Nazioarteko laguntzarik ezker egitasmo interesgarria garatzen du GKE honek. Afrikan sendatu egin diren edota zaila zuten hainbat dituzten haurrek Europara sendatzea ekarazteko.

Neska edo arropako arazoak dituztenek normalean Donostiara ekartzen dituzte. Berako ospitalean artzen diren Antri doktore aditua da arropagimasiariako kirurgian eta GKE doktoreak kirurgian eta Duela bi urte, Augustine sendatu zuten, anizeko arazoa zuten Beningo beste haurreko bat. Yanellek arazo larriagoa zuen, baina Donostiako ospitalean egin dioten ebakuntza ondo alera da, jada ahoa zabaltzen da, zehabatu hilaibete daramatza arriketat egiten eta egun batzuk barra jatorritira itzulkiko da.

“Orotara ia sei hilaibete daramatza Euskal Herrian 15 urteko benindarrak eta bizimodu zehar egotera berrira ondo egin daiteneko”



GOIEGI
Jantokia - Restaurant
Indule baltarra 1 - 20100 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
T. 943 36 14 04 / 943 37 1178



www.goregi.com
Maiztasun itralera guzuei zabalik jantietako.
Asteko menu berezia jantietako.
www.goregi.com



Yanelle irribarrean Lasarte-Oriako familarekin. Korrika eginean panderoa jor zuten aurrea eta gero ikusiko hartu.

Harrera familialek behar dira. Uste duguna baino askoz gehiago eman dezakegu. Ezingo dugula pentsatu arren, gero ez da hainbestetako

egiteko, gauak pasatzeko. Gau eta egun berearekin egon ez gaitzen. Maialen Suberbiola eta Julen Olloketegi dira sende lagun zaitzaileak. Beharrezkoak dira, gaitzirik bazaudete, edo arazotatik irten behar diren arren. Tokibetan artzen da lanean Edu Galardi eta Beste Gu Dani Arizagaren programan ikusita jaten zuten Gizakien Lurra GKEaren berri. Saso batean haurrak hartzen zituen pesie familia bat ezagutu zuten eduk, azaldu digu Isa Fernandezek.

Multiingurimosa

Familia bat osatu du hainbat guraso, eta hauen alabekin. Alai, ama eta ahizpa dira bereziki. Benin hiru anal-arreba dituzte, beste bi neska eta muturkoak. Ondo konpondu dira hainbat bestearekin hizekuntza menderatu ez arren: "multiingurimosa praktikatu dugu; komunikatzen gara," eta orain Yanelleekin, erpeirikatu egin dugu". Augustinaren agurra, atreportuana, gogorra



ARREGUI
Material elektrikoa
Argiak
Etetresna elektrikoak
• TB/Hi-Fi
• Instalazio elektrikoak
Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 36 1080 • Tel./Faxa: 943 37 2521 • LASARTE


Gizakien Lurra erakundeak programa ezberdinak garatzen ditu hainbat tokitan, esaterako Benin-en 1974tik ari da lanean. Lan hori ezagutarazteko aurretik bideo bat prestatu dute Lasarte-Oriako Udalerriaren laguntzarekin. Iudri zabarrak erabiliz, Isa Fernandez de Agirrek egin du munduata eta ahoska Pello Arriek jarri dio.

Modu ezberdinak daude emateko. Gizakien Lurra GKEk

Yanelle ekarri eta sendatu duen proiektuan laguntzeko: bolondresak behar dira baitetik, sendeagatik urrun eta betiko bizimodutik aparte, egoera pertsonal delikatuaren dauden haur hauei ospitalean behar dutona emateko. Gizakien Lurra GKEk

Gizakien Lurra Benin-en

hiru bolondres ditu Lasarte-Orian, Isa Fz. de Agirre bera, Agurtzane Letona eta Maialen Suberbiola. Baina batez ere, aldi baterako urreak hartuko dituzten familialek behar dira. Hauak Edu Galardi eta Isa Fernandezek eskatzen dituzten nandez-ek bezala, haurrak



LURRALDEBUSeko istorioak



LURRALDEBUS

Arantxa, 71 urte
"Mariak hartzen duen autobus linea bera hartu ohi du. Bereizina egin dira."
Jatorria: Donostia Antiguoa
Norakoa: Herrami

Maria, 68 urte
"Hirugarren adinekoentzako mozorro festa baitetik dator."
Jatorria: Donostia Antiguoa
Norakoa: Herrami

www.lurraldebusekoistorioak.com

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

Kirolerako oharrak

Ostadarreko porra

Ostadar Kirol Fundazioak txirrindularitzako porra antolatuta du aurten ere.

Egun hauetan ohiko tabernetan aurkituko dituzue boletoak betetzeko.

Gogoratu lasterkeretako lehenengo etapa egunean biltzen direla guztiak. Beraz, Giroa maiatzaren 9an hasten denez, boletoak egiteko epea egun berdinean, larunbatean 21:00etan amaitzen da.

Porra funtzionamendua betikoa izango da, baita boletoaren salneurria ere, 7 euro.

Porra egiteko txirrindularien zerrenda Ostadarreko webean aurkitu ahal dezakezue eta giroa behin hasita sailkapen eta boleto guztiak bertan aurkituko dituzue.



David Martin Santa Krutzetan garaile



David Martin Andoainaren garaile izan zen. Argazkian, Donostia-Behobian.

Andoaingo Santa Krutzeko festen barruan ostirala, maiatzaren 1ean Zumeatarra elkarteak antolatzen duen Ignacio Ibargiuren Memorialaren 30. edizioa ospatu zen.

Seniorren kategorian aurtengo garailea David Martin Blazquez herritarra izan zen, 31 minutu eta 34 segundotako denborekin. Emakumeen sailkapen orokorrean beste herritar aski ezaguna bigarren gelditu zen, Pili Bodegas 25 minutu eta 5 segundoko denborekin eta 35 eta 44 urte bitarteko emakume beterrano-

en mailan, berriz, irabazlea izan zen.

Omenaldia

Egun horretan ere atletismo munduan ezaguna zen eta orain dela gutxi hil den Vicente Huizi omendu zuten.

Ekitaldia auresku batekin hasi zen eta ondoren oroigarri batzuk eman zizkieten Jon eta Ane bere seme alabei.

Ekitaldi honetan Santos Uribe herritarra ere izan zen, urte askotan atletismoko pista eta lehiaketetan elkarrekin ibiliak baitziren. •

Gipuzkoako txapelkunak Lasarte-Orian

Lehenengo asteburuan, zubiaz baliatuz, kanpoko pistatako denboraldia gogor hasi dute LOKEko Junior, Jubenilen eta kadeteek Gipuzkoako txapelketan lehiatuaz. Lasarte-Oriako taldeko atleta gazteek urrezko bi domin eta brontzezko bat eskuratu zituzten.

Gipuzkoako txapelkunak

Kadete mailan Gipuzkoako txapelkun dugu Irati Larrañaga gaztetxoa.

Altuera proban 1,41 metroko marka egin zuen bere arerioen antzera, baina saiakerak eta hutsak kontuan izaten direnez, LOKEko atletak eskuratu zuen lehenengo postua.

Eta Maria Montero juniorrak ere 400 metro hesiekin proban 1:15:65 markarekin Gipuzkoako txapelkun izatea lortu zuen.

Baina hauek ez ziren urrezko domina eskuratu zuen lasarteoriar bakarrak izan. Izan ere, Antoniano

kirol elkarteko Olatz Yabeneke ere kadete mailako 3.000 metroetan gailendu baitzen, Gipuzkoako txapela eskuratuaz.

Eta, arestian esan bezala, LOKEko gazteek ere brontzezko domin bat eskuratu zuten.

Hirugarren postu hori eskuratu zuen atleta, Unai Imaz jubenila dugu. 800 metroko proban lortu zuen domina 2:03:76 marka eginaz.

Asteburuko txapelketak

Honetaz gain, asteburu gogorra dute Amaia Andres eta Oskar Goikotxearen neska-mutilek.

Larunbate honetan LOKEko junior, jubenil eta kadete mailako atletak Donostian burutuko den Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Eta, era berean, Landaberri Garaikotxeako atletak esko-larteko Gipuzkoako txapelketan egongo dira. Zorteak opa diegu guztiak. •

Kirolerako agenda

FUTBOLA

Larunbata 9

10:30ean, Ostadar-Hondarribia (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.

10:30ean, Elgoibar-Ostadar (I. Jubenila, i-goera fasea) Mintxeta, Elgoibarren.

12:30ean, Elgoibar-Ostadar (Infantil Txiki Kopa) Mintxeta, Elgoibarren.

15:30ean, Texas Lasartearra-Ikasberri (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

15:30ean, Eibartarrak-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-II, txapelkunen fasea) Unbe, Eibarren.

17:15ean, Ostadar-Segura Goierri (II. Erregionala, i-goera fasea) Michelinen.

Igandea 10

10:00etan, Ostadar-Allerru (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

11:30ean, Texas Lasartearra-Mundarro La Salle (I. Jubenila, kopa kanporaketak) Michelinen.

FUTBOL 7

Larunbata 9

21:15ean, Niasa-Corpa-Zubiondo Team (III. maila) Matigoxotegi, Donostian.

FUTBOL 8

Larunbata 9

12:00etan, Lasarte BHI-Zarautz K.E. (Infantilen eskolartekoa, txapelkunen fasea) Michelin.



ARETO-FUTBOLA

Larunbata 9

16:30ean, Azpeitiko-ISU Leiholak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Azpeitiko kiroldegian.

17:45ean, Aldatz H.K.-Lakunza Garraioak, (Euskal Liga) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Ligila eta kontsolazioa

Michelin edo frontoian

9:15ean, Morrison-Obelix

10:15ean, Oriá Krist-Danena

10:15ean, Epel-Mayi

13:15ean, Viña del Mar-Katanga

Play-off atzeratua

12:15ean, Buenetxea-Ainhua

Igandea 10

HERRIKO TXAPELKETA

Play-off finalurrekoak

Kiroldegian

9:15ean, ISU Leihoko-Jordi

10:15ean, Izkiña-(Buenetxea edo Ainhua)

SASKIBALOIA

Igandea 10

12:00etan, Baskoplastika-Ainhua (Gizonezkoen seniorra) Azken Portu kiroldegia, Irunen.

SQUASH

Kiroldegian, 18:00etatik aurrera

Ostirala 8

Agustin Erkizia-Diego Barrasa Julen Vega-Kinin Calvo

Astelehena 11

Txema Valles-Aitor Artola Iker Cañedo-Iñaki Garcia

Asteartea 12

J.R. Urruzola-Aitor Reyes Alberto Udabe-J.A. Ramos

Asteazkena 13

Xabier Amiano-Agustin Erkizia Diego Barrasa-Julen Vega

Osteguna 14

Kinin Calvo -Txema Valles Aitor Artola-Iker Cañedo

PILOTA

Ostirala 8

XLIII. HERRIARTEKO TXAPELKETA

Elgoibarreko ikastolan

21:00etan, Elgoibar-Lasarte-Oria

Larunbata 9

UDABERRI TXAPELKETA

16:00etan, Zumaia-Intza I

(Eskuz binaka, infantila)

Aritzabalde pilotalekua, Zarautzen.

16:00etan, Mundarro-Intza 2

(Eskuz binaka, infantila) Astigarra-gan.

16:00etan, Intza 3-Lizardi Igeldo

(Eskuz binaka, infantila) Igeldon.

Igandea 10

Egun osoa, Garaikoetxea Landaberriko atleta gazteak esko-larteko Gipuzkoako txapelketan, Tolosan.

GIMNASTIKA

Larunbata 9

10:00etan, LOKEko alebiren taldea eta infantilen taldea Udaberriko txapelketako 2. jardunaldian lehiatuko dira, Hernaniko kiroldegian.

IGERIKETA

Larunbata 9

16:00etan, Buruntzaldeko Igeriketako taldeko gaztetxoak Kirol Zehaztasun Ligako 5. Jardunaldian, Tolosan.

TXIRRINDULATITZA

Larunbata 9

16:00etan, Buruntzapiko gaztetxoak alebiren eta infantil mailako Gipuzkoako taldeko Erlojupeko txapelketan, Usurbilen.

BOLA-JOKOA

Igandea 10

10:00etan, Ostadarreko bolo sailak Gipuzkoako kopan parte hartuko du, Urnietan.

ATLETISMO

Larunbata 9

Egun osoa, LOKEko atleta gazteak Euskadiko Junior eta jubenil mailako txapelketan, Donostian.

Egunero

Erakusketa

KIRIOAK DANTZAN kamiseten erakusketa Vanessa Gimeno, pintura oihalean. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan zehar.

Erakusketa

LASARTE-ORIA BIZILAGUN ELKARTEKO MARRAZKI ETA PINTURA IKASLEEN LANAK ikusgai. Doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 8

Hitzaldia

ZABALETA AUZOAN, "ZABORREN JESTIO-KUDEAKETAN EREDU BERRIA, ZABALETAN ATEZ ATEKOARI BAI?" gaia jorratuko dute Lasarte-Oria bizirik taldekideen eskutik Zabaletako plazan 20:00etan. burutuko den hitzaldian. Ondoren Teresategiko proiektuaren inguruko informazioa emango zaie auzotarrei eta bukaeran indar-berritzeko nahikoa jan eta edan izango da. Zabaletako plazan, 20:00etan.

Larunbata, 9

Kontzertua

KUDAI TALDEAREN (trash metal industrial) emanaldia, "Shah Mat" hirugarren diskoa aur-



Kalitatezko hari laukotearen emanaldia gaur kulturetxean

DOS HARI LAUKOTEAK kontzertua eskainiko du Kutxak eta Udaleko kultura eta hezkunta sailak antolatuta. Laukote honetako musikari gehienak EOSeko musikari finkoak dira 2007ko abuztutik. Herriko Tomas Rutir bibolin jolearekin batera, Mirelys Morgan (bibolina), Lorena Otero (biola) eta Natalia Diaz (bibolina) musikarik arituko dira.

GAUR OSTIRALA
KULTURETXEAN
GAUEKO 20:00ETAN, DOAN

keztuz. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean.

Lekuona kulturetxean, 19:30ean, GAZTELANIAZ

Igandea, 10

Erromeria

AZKORTEKO ERROMERIA ospatuko da urtero bezala, Ttakunek antolatuta. Hasteko meza izango da, gero herri-kiroletan harri-jasotzaileak eta aizkolarriak, bertsolariak, trikitilariak... izango dira. Azkorte ermitan, 11:00etatik aurrera, EUSKARAZ.

Astelehena, 11

Hitzaldia

GIZA BALIOAK: zoriona lortzeko bidea Danok Kide elkarteak antolatutako Balioetan Hezi Jardunaldien barruan, Concepcion Medrano Garapen psikologia eta hezkuntzako irakasleak Zoriontasuna filozofiatik hitzaldia eskainiko du. Doan. Kulturetxean, 19:30ean. GAZTELANIAZ.

Asteartea, 12

Hitzaldia

Giza balioak: zoriona lortzeko bidea Balioetan Hezi Jardunaldien barruan, Javier Elzo Soziologia katedradunak Gizarte zoriontasua hitzaldia eskainiko du. Doan. Manuel

Asteazkena, 13

Hitzaldia

ZORIONTASUNA BIZITZA PERSPEKTIBA BEZALA hitzaldia eskainiko du Lasarte-Oriako parrokoa den Xabier Andonegi Donostiako Erligio-zientzien Goi Mailako Institutuko zuzendariak, Giza balioak: zoriona lortzeko bidea Balioetan Hezi VI. Jardunaldien barruan. Doan. Kulturetxean, 19:30ean, GAZTELANIAZ

Osteguna, 14

Hitzaldia

ZORIONTASUNAREN IKUSPEGI PSIKOLOGIKOARI buruzko hitzaldia eskainiko du psikologo kliniko den Patxi Izagirrek, Giza balioak: zoriona lortzeko bidea Balioetan Hezi VI. Jardunaldien barruan. Doan. Kulturetxean, 19:30ean, GAZTELANIAZ

Ostirala, 15

Dantza

CONCERTO DESCONCERTO emanaldia eskainiko du Entremans konpainiak Lasarte-Oria dantzan atalaren barruan. Sarrera, 6 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

ESAZU IRRATIA

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Zabaleta auzoko festak

Zabaleta Auzolanek jakin arazten du, ekainaren 2tik 7ra burutuko diren auzoko festak antolatzeko bilerak egingo direla, ostegunero 19:30etan, Antonio Blas plazan.

Herri Urratsera joateko autobusa

Ttakunek aurten ere Senperen ospatzen den Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du. Txartelak Ttakunen daude salgai 12 eurotan. Autobusa goizeko 9etan aterako da Taxiaren geltokitik.

Ate ireki egunak maiatzean

Usurbilgo Lanbide Eskolak Ate Irekien eguna antolatu du. Aurten maiatzaren 9an eta 16an goizeko 11:00etan, eskolako instalazioak zabalduko dira eta interesa duen guztiak ikusi ahal izango ditu

gelak eta tailerrak. Ate Irekien edo Lanbide eskolako informazio gehiago 943 364 600 telefonoan.

Begirale izateko

Ttakunek udaran antolatzen dituen udaleku ezberdinetan begirale izateko izena emateko epea zabalik dago maiatzaren 15a arte. Interesatuak Ttakunetik pasa (Geltoki kalea 4, 943 371448) edo mezua bidali: aisia@ttakun.com.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Dagokionari

Elementu arrisksua lurrean

Aurreko egun euritsu batean eta udal haurtzaindegiko aldatatik behera nindoala, irrist eginda hankaz gora lurrera erori nintzen. Erori nintzeanean, burura etorri zitzaidan lehenengo gauza alaba haurtzaindegian utzita neukala izan zen, besoetan eraman nezakeela pentsatze hutsak hotzikara sortu zidan. Irrist zergatik egin nuen jakin nahian, erori nintzen lekura joan eta han ikusi nuen Telefonoak lurrean jartzen dituen tapa horietako bat. Tapak inguruan metalezko marko bat dauka eta hori bustita zegoenez, hanka gainean jartzean erori egin nintzen. Tapa hau

lehen esan bezala udal haurtzaindegia dagoen aldatik behera nindoala, irrist eginda hankaz gora lurrera erori nintzen. Erori nintzeanean, burura etorri zitzaidan lehenengo gauza alaba haurtzaindegian utzita neukala izan zen, besoetan eraman nezakeela pentsatze hutsak hotzikara sortu zidan. Irrist zergatik egin nuen jakin nahian, erori nintzen lekura joan eta han ikusi nuen Telefonoak lurrean jartzen dituen tapa horietako bat. Tapak inguruan metalezko marko bat dauka eta hori bustita zegoenez, hanka gainean jartzean erori egin nintzen. Tapa hau lehen esan bezala udal haurtzaindegia dagoen aldatik behera nindoala, irrist eginda hankaz gora lurrera erori nintzen. Erori nintzeanean, burura etorri zitzaidan lehenengo gauza alaba haurtzaindegian utzita neukala izan zen, besoetan eraman nezakeela pentsatze hutsak hotzikara sortu zidan. Irrist zergatik egin nuen jakin nahian, erori nintzen lekura joan eta han ikusi nuen Telefonoak lurrean jartzen dituen tapa horietako bat. Tapak inguruan metalezko marko bat dauka eta hori bustita zegoenez, hanka gainean jartzean erori egin nintzen. Tapa hau



arrisksuak direla iruditzen zait. Guzti honengatik gutun honen bidez udalari, benetan ezar larria gertatu baino lehen, arazo honentzako konponbide bat aurkitu dezala eskatu nahi diot, nire izenean eta arriskuan egon daitekeen edozeinen izenean.

A.G.

‘Marrazki errazak egiten saiatzen naiz eta gauzak isladatzen dituztenak’

Kirioak dantzan da hilabete honetan Jalgi kafe antzokian ikusi dai- teken erakusketa. Ohiko koadroak edo argazkiak alde batera utzi eta kamisetak daude ikusgai. Egilea Zumarragako Vanessa Gimeno du. Harekin solasaldia izan eta, besteak beste, kamisetak egiten nola hasi zen edo teknikak nola ikasi zituen kontatu digu. Baina, honetaz gain, Ttakunek antolatu duen kamiseta ikastaroko irakas- leetako bat izango da eta horri buruz ere hitz egin du.

Nerea EIZAGIRRE

Nola hasi zinen kamisetak diseinatzen?

Betidanik gustatu zait. Oso mugitua naiz eta gauzak ikas- tea gustuko dut. Hasten zara koadroak margotzen eta belar- rritako batzuk ikusten dituzu; erraza dirudi, posible da guk egitea,... hasten zara hori egi- ten, gero kamiseta batzuk ikusi eta hori ere egiten duzu.

Gainera, kamiseta bat erostera zoaz eta kamiseta bereziak erosten dituzu, nik egindakoen antzekoak, edo kamiseta itsusiak daude. Zen- baki handiak edo ingelesez dauden esaldiak eramatea dago modan, nahiz eta esa- nahia ez ezagutu. Nik ez dut horrelakorik gustuko. Gainera oso sinpleak dira.

Beraz, denda bereziatara zoaz kamisetak erosteko edo kamiseta lisoa erosten duzu eta zuk gustuko duzuna egi- ten duzu.

Eta noiz hasi zinen?

Uste dut duela lau edo bost urte lehenengo kamiseta egin nuela. Bat bakarrik egin nuen nire ilobaren igaro errikoa izan zen eta bat oparitu nion. Hori egin eta hurrengo egin arte bi urte igaro ziren. Nire lagun bati oparitu nion bere urtebetetzean. Horiek josita egin nituen. Eta kasualitatez beste lagun batek ikusi eta horrelako bat nahi zuela esan zidan.

Honela, urtebetetze batean lagun guztiak bildu eta kami- setak banatu nizkien guztiei.

Eta orain batzuetan eskatzen dizkidate.

Zaletasuna da zuretzat edo lanbidea?

Nik diseinua ikasi dut, baina hau zaletasuna da. Beno egia esan, erdia ikasketa eta erdia hobya. Oso urduria naiz eta gauzak egitea behar dut. Adi- bidez, jendeak etxea garbitzen du eta ni etxean nagoanean, hau josten dut honekin eta hau horrela margotu...

Etorkizunean espero dut kamiseta nik ere diseinatzea, baina pixkanaka. Orain, proiektu aurkezten ari naiz ikasketak bukatzeko eta ikusiko da.

Zein teknika erabiltzen dituzu kamisetetan?

Ba, josi eta margotu. Margo berezi batzuk daude oihalean margotu, plantxatu eta marraz- kia finkatzen da.

Niretzat antz handia du serigrafiarekin, batik bat marrazkia oihalean nola gera- tzen den ikusita. Serigrafia agian txukunagoa da. Ukitzen baduzu ez dauka ezberdintan- sun handirik. Hala ere, dibe- rtigarriagoa da marrazkia bertan egitea, eskulana baita.

Eta nola ikasi dituzu erabiltzen dituzun teknikak?

Ez ditut inon ikasi. Nik neure kabuz ikasiak dira. Materiala erostera zoazenean kezka- ren bat edo baldin baduzu ba sal- tzaileek azaltzen dizute. Zu saiatzen zara eta batzutan ongi ateratzen da eta beste- tan desastre hutsa da. Norma- la da horrela izatea.



Vanessak oihalak eta margo bereziak erabiltzen ditu kamisetak diseinatzerakoan.

Esate baterako, erakusketa- rako ekarri dudak kamiseteta- ko bat taulan jarri eta oihala oso baxu josia dagoela kontu- ratu naiz. Gero akats horiek gortuzten ez dira nabari. Bigarrena edo hirugarrena zen eta normala da. Gainera, lehenengoan amak lagundu ematen zidan ze pedala zan- patu eta abiadura handia du makinak.

Lan handia al da kamiseta diseinatzea?

Teknikaren arabera. Josteak lan handia dakar eta marrazkiari dagokionez, ni normalean marrazki sinpleak egiten saia- tzen naiz. Izan ere, asko margo- tzen baduzu kamiseta pitzatzen da eta itsusia geratzen da.

Lan polita da. Gustuko dudak gauza izanik eramanga- rriagoa da. Ni oso urduria naiz

eta ez daukat pazientziarik eta kamisetak egiteko beharrezkoa da lasaia izatea. Hala ere, horrelako gauzekin lasai ego- tea lortzen dut. Kamisetak edo puzzleak, esate baterako, gus- tura egiten ditut. Lan goxoa da eta bat batean konturatzen naiz erri- moa daramadala, lasai nagoela eta denbora pasatzen dela.

Nolako gaiak erabiltzen ditu- zu kamisetetan?

Lehen aipatu bezala, marrazki errazak egiten saiatzen naiz eta, era berean, gauzak isla- datzen dituztenak, niretzako esanahi handia dutenak.

Normalean lagunei egin- dako kamisetak dira eta haiek iradokitzen didatena marraz- ten dut. Batzutan niri gusta- tzen zaidan ideia da, baina besteetan iradokitzen didate- na marrazten dut.

Oihalarekin egindakoek ez dute esanahirik. Baina margo- tuak oparitzen ditudanean nik sentitzen dudana edo hain sentimentalak ez den ideiare- n bat adierazten dute.

Kamisetak koadro baten mihi- sea dira zuretzat?

Bai horrela da. Ezberdintasun handia dago. Gogo berdinare- kin egiten dituzu zerbait adie- razi nahi duzualako. Suposatzen da kamisetak gehiago ikusten direla. Baina niri biak gustatzen zaizkit, txikitatik marraztea gustuko dut eta.

Kirioak dantzan erakusketan zer ikusi daiteke?

Hamar kamiseta jarri ditugu ikusgai, gehiago nituen baina ez dira denak sartzen.

Guztiak lagunena dira, beraz erakusketarako utzi dizki- date eta oihalarekin eta margo- arekin eginak daude. Lehenengo, ilobaren igaro erri- tokoa, erakusketan dago eta beste batzuk ere bertan daude.

Jendea hurbildu dadila eta gustuko duen edo ez ikusiko du. Kamisetak dira eta bakoi- tzak ikusi behar du zer senti- tzen duen horiek ikusterakoan.

Gainera, norbaitek erakus- ketako kamiseta baten errepli- ka nahi badu, nirekin harremanetan jarri daiteke, vaneadore@hotmail.com, hel- bide elektronikoan.

Irakasle lanak egingo dituzu aurki, ezta?

Bai horrela da. Ttakunetik deitu zidatenean txundituta geratu nintzen, andereñoa ni. Baina ni oso urduria naiz, ezin dut klase bat eman. Hala ere, nik beti ezetza pentsatzen dut lotsa edo beldurra dudalako eta era berean bidean nago.

Dibertigarria izango da ikasi nahi duen jendearekin egotea. •

ADURIZ DE LASARTE S.A

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278

ERREKATXO JATETXEA

JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO MENU BEREZIAK

- Eguneko menua
- Ostiraletako menua 8 euro
- Asteburuko menua enkarguz

Oria Etorbidea 4 • Tel.: 943 365557 • Lasarte-Oria